

## g) Konpetentzia digitala

### *1. maila: Oinarrizkoa*

Gai da nabigatzeko eta informazio digitala bilatzeko eta iragazteko. Ezagutza egokia du ingurune digitalak komunikaziorako erabiltzeko ikasleekin, beste irakasle batzuekin eta hezkuntza-komunitatearekin: posta elektronikoa, komunikazio-taldeak, bideodeiak, etab. Gai da ikasleen ikaskuntza-premiei egokitutako material hezigarriak sortu eta partekatzeko; besteak beste, inkestak eta formularioak.

### *2. maila: Garatze bidean*

Gai da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan erabiltzeko bereziki egokiak diren askotariko informazio-iturri dinamikoak aurkitzeko. Gai da ingurune birtualetan formatu ezberdinekin aurki daitezkeen hezkuntza-eduki eta -baliabideak partekatzeko. Ezagutzen ditu bere esperientziak partekatzeko eta komunitate birtualetan eta/edo sare sozialetan parte hartzeko komunikazio-estrategiak.

### *3. maila: Garatua*

Jarrera kritikoa du formatu digitaleko edukiak erabiltzeari eta sortzeari dagokionez, eta gai da ikasleen artean baliabide digitalen kontsumo etiko eta segurua sustatzeko. Sareko lankidetzaproiektuetan aktiboki parte hartzea sustatzen du, eta lagundu egiten die ikasleei beren nortasun digitala kudeatzen ikasten.

### *4. maila: Aurreratua*

Konpetentzia digitalari buruzko ezagutzak partekatzen ditu ikastetxe barruko eta kanpoko beste profesional batzuekin.